

La obra literaria de Enrique Zubiri

Con ocasión del aniversario del nacimiento del que fue un buen estilista en lengua vasca, ZUBIRI, más conocido de sus lectores por su pseudónimo MANEZAUNDI, no quiero que falte mi contribución sobre su estilo de escritor eusquérico. Enrique ZUBIRI vivió casi toda su vida en Pamplona, de cuya Escuela de Artes y Oficios fue eminente profesor de dibujo y pintura. Me unió con él una regular amistad durante muchos años. Sus dotes vascológicas, que cultivó hasta morir, le fueron reafirmando en sus sentimientos religiosos, entibiados debido a su carácter pragmático y un tanto escéptico; muchas veces le oí decir que creía poco en los hombres y menos en las mujeres. Como el retrato de una personalidad como ésta debe ser fiel, pienso que no se deben ocultar algunas facetas de su espíritu, por muy cara que nos sea su memoria. Pues si no damos más que alabanzas y virtudes, ¿quién podrá dar crédito a la estampa?

Su figura era noble, siempre atildado en el atuendo, de sombrero y bastón, de conversación fina y atrayente, como correspondía a su extensa cultura gala; *mutilzar* impenitente, pero no por su culpa, pues su único amor resultó malogrado. Con *euskaldunes* siempre hablaba nuestra lengua, que la dominaba, y en la que escribió una porción de artículos de un interés grande por la altura de los temas, en una prosa bella, elegante y matizada; pero sin alejarse nunca del estilo popular de su querido pueblo LUZAIDE que, en vascuence, pertenece al dialecto occidental de Baja Navarra. Quedan todavía una porción de artículos no publicados en mi libro PROSISTAS NAVARROS en LENGUA VASCA; así como varios cuadernos llenos de vocabularios y frases e idiotismos populares, de un valor inestimable. Tenemos sin embargo que lamentar la destrucción, en momento de confusión, de una porción de cartas de amor de un grande interés sin duda.

ZUBIRI, IDAZLARI GISA

Atsegin handienarekin mintzo naiz emen ZUBIRI luzaidar idazlariatz, adiskide mina izan nuelakoz urte aunitzetan. Uste dut, ni izan naizela haren balioa eta haren idaz-tankera aipatu ditudan lehenetariko bat. EGAN aldizkarian izkiriatu izan tut behin baiño geiagotan: gero, arestian aipatu ene liburuen Aitzin-solasean.

Eta Satrustegui gure lagunaren euskalzain izendapena hartzean LUZAIDEN, ene ihardespenean aipatu ere nituen ZUBIRI-ren berri batzu.

PROSISTAS NAVARROS aipatu liburuan (eta barka ene buruaz berriz aritu-bear izatea) DIPUTAZIONE huntako Euskar-Saillaren gain argitaratua Iruñean 1958 urtean, MANEZAUNDI-ren 29 ipuin eta irakurgai aurkitzen dira.

Horien artean denetarik bada: euskaldun ospetsuen bizitza laburrak, DECHE-PARE, HUARTE de Sanjuan, AZPILCUETA, BORYEL koblakarienak; asma-keri eta ipuin irringarriak; KOKOTZ ARRANTZARIA — PIARREXEN IZIALDURA — TRESNA TXAR BAT — DONIBANEKO MERKATIAN-bezalakoak.

Historio KONDAIRA gertakari; ORREAGAKO GATASKA eta HIRU BEIEN ZERGA — ORREAGAKO BEILAK — eta abar. — Nere liburu hori salgei baitago Iruñean, ez dut bere artikulo geiago-rik aipatuko. — Ortografia aldatu ginuen pixka bat, eta zenbeit uts ere oraiiko moldera paratu.

BERE EUSKARA ederra da, biziki aberatsa eta naturala: gatza eta piperra ez du eskas ipuin batzuetan. Baxenafarreko eskuara du, bere herri Luzaidekoa. Luzaiden eta MANEZAUNDI-ren eskuara hortan galdekizun edo *forma interrogativa* delakoak usatzen dituzte: DIREA? DUZIA? GIRE A = ¿Son? ¿Teneís? ¿Somos? Bonapartek zion Espainialdean, txoilik Zaraitzun eta Erronkarin usatzen direla *interrogativa* horiek: baha hori ezta hala: nik askotan entzun izan ditut IRUN-en eta ONDARRIBIA-n bederen.

(H) Hache aspirada delakoa usatzen da Manezaundiren euskalkian: eztira usatzen -n eta -l- bustiak: bai *oilo*, *zaina*, baiño ez *ollo* - *zaña*. Bereixten ditu -*ukhan*- eta -*izan*- (haber - ser). Izenaren eta partizipioaren azken *u-eskua negua sartuko* (sartu) Luzaiden egiten dira -*eskia* -*negia* -*sartiko*.

Herriko yoskera eta itzulietatik ezta beinere urruntzen: altabada ezdu mordolokeririk edo itsuskeririk yasaiten. Beretako Irakasle eta Akademiko obere-nak eskual menditarrak izan dira, zaharrago eta obe.

ESKUARAREN IDAZTEAZ artikuloan dio: «Anitzek uste dute eskuaraz « untsa idazteko aski dutela hiztegieta hitz guziak jakin gogoz eta apuñatik. »Eta ezta batere hala. — Ene ustez hitzen ikastea bezain beharrezkoa da aditza »edo berboa, egindura eta itzuliak [joskerak] eskualdunki ibiltzea».

Eskualdun berri idazlari zenbeitetaz dio... « eskuara emokatzen kotsatzen eta iluntzen...» ari direla. Berari ere, aldika utsen bat eskapatzen zaiko joskeran, aktibotan, *reiteración de sujetos y de formas* delakoan, eta relativo orazionen yoskeran adibidez: *Gure muthikoak besoa altchaturik eskerrak itzultzen dazko makhila goitituz* (Battittaren soldadogoa) = *Nausia urruntzen zelarik uzten abal zituen lantokiko tresnak haren gerizann* (Oroitzapen zaharrak) = «*Udaberriaren buruz gira*»...Lizarraga ELKANO-koen tankera iduri.

PROSISTAS liburuan argitaratu irakurgaiez landara, baditugu zorionez, beste ipuin asko, 60 baino geiago, gutti ezagunak: geienak Diputazione hunen BIBLIOTECA OLABE-ren 1935 urteko norgeiagora MENDIZGAINDI izenakin Zubirik presentatu zituen ipuiñak. Horietatik askok argitaratzea merezi dute. Badira *lirikoak*, euskal mendien edertasunaz, soropilaz eta baserrietako ba-keaz mintzo direnak: *Udako oiartzunak* — *Supazter solasak* — *Mendiz gaindi* — *Udaberriari buruz* — izenekoak.

Sortherri eta mintzairaren aldekoak: *Bachenabarre ahantzia* = *Anaitasuna* = *Yartzarte ederra* = *Mendiz haraindikoak* = *Eskuararen ikhasteaz* = Azken huntan galde egiten du MANEZAUNDI-k, « Eskual idazle jakintsu guziek eskuararen ikasterat norat joan dire? Nori eskatu diote argitasunak? Menditarren ganat, eta heien artean, zaharren-etarat».

Gero, aurkitzen ditugu bidaien azalpenak, reportajeak; EHORTZE SAIN-DUA — GURE DANTZAK — BIDEAK eta ANAITASUNA; Nafarroako kon-dairari buruz 5 artikulo intresgarriak, 1512 urte aitizineko eta ondoko gerta-

kari eta gataska larrienak kondatuz; hala nola GAMAZADA deitu inarrosaldia-
ren azalpen laburra. Eskualdun ospegarrien bizitz geiago ere dakartzi liburuak,
MORET, AXULAR, CAMPION bezalakoena.

IKHAS GURE MINTZOA artikuluan dio MANEZAUNDI-k: «nihauk ere
anitz ahantzia izanik [Eskuara], hainbeste urthe Iruñen egon ondoan, jarraiki
nintzan arraberritzerat, eta zalusko ikhasi nuen». Gazteago zen denbora hortan
gurutzatu nintzen beraikin, eta oraino eskuara ikasi eta barnatu gabea baizegon,
gutiespen apur bat nabaitzen nion nik eskuararendako. Gizon ikasia eta frantzes
kultura zabalekoa baizen, labor eta eskas kausitzen bide zuen gure mintzaira,
bere buruan halatzen zituen gogoetendako.

Euskal autore zaharrak ezagutzen eta ikhasten zoaien arabera, iritze hertsia
hura zabaltzen ziohakon. Orduzgeroztik, eskuara lantzaile eta mintzazaile ja-
rraikienetako bat izan zen hil artio.

Langai horietaz kanpo baditugu oraindik 8 kuadernotxo, Luzaide eta Ga-
raziko eskuara-hitzez eta hitzaldiez, erranerez (modismos) beteak. Aberastasu-
joria, kredit haunditakoa, herritarren ahotik hartuak denak; argitaratzea merezi
luteke, eta huna aditz -forma bereix batzuen adibideak: HAUR BAT IASANA
ZITEAN = Tenían adoptada una niña / ZE-IN DAKOKEZIE? = ¿Qué le
habéis debido de hacer? / ZURE GOMENDIO DIRE HAURRAK = Bajo su
custodia... / ZE ERASTEN DUTE? = ¿Qué tartarrean? / ETZIAUZKIXUN
EMAN = No nos los dieron / HURA TALAPASTATZEN DIXI = Aquél se
te revuelve / DEUSEE ETZIZKIA XU ENI = Nada me importan (esos) /
XAUXUNERIAK = Chinchorrerías / XAUXUNA = Chinchorrera, entrome-
tida / EMAZKITXU = Dalos / EMAZKIA XU = Dámelos / EMAZKIA XU
Dánoslos / EMAZKIAKOXU = Dáselos / AHANTXUÑO FINITIAK DUZ-
KETELA = Que estarán a punto de terminarlos / EZTIK BERE BURIA
EDERTZEN AFERA HORREKIN = No se honra mucho con ese negocio. /
TO, IN DIAT! Toma, me he dicho! / EMEK HAURRER ATSAKASKA-
RIA = Dales la merienda a los niños / AURIZTARRAK TIRITARRAK,
ZIEK UZKERRAK, GUK EPERRAK, BIBA, BIBA! LUZAIDARRAK / Le
tomé / HARTU NIAKOXUN / Se los di = EMAN NIAZKOTXUN / No sa-
bría exactamente = EZ NAKIKE XUXEN / Complice = KOSENTA / Ato-
londrado = DURDURIKATU / Zalamera = TUTUSA / Hombre de mucha
trastienda = ZAKU HANDIKO GIZONA / Como quien dice = ERRAN
DENA / Cascarrabias / ENPOLDUIA / El clavo se mete a fuerza de gol-
pear = ITZIA IOAREN BORTXAZ SARTZEN DUK / Te las he dicho con
amor = MAITEZ ERRAN DAUZKIZUT / ¿Cuando no me he caído ahí largo
largo! = EZ BAINIZ HORTXET ZABAL ZABALA ERORI! / Una vez em-
pezado = ASIAN ASI / Condición precisa, indispensable = KONDISIONE
BAITEZPADAKOA / ¿Cómo se las arreglan? = (BERTZEAK) NOLA ITZU-
LIKATZEN DIRA? / Sofocado = HATS ANTUA / ¿Estaba con ganas de
reir, o nos tomaba el pelo? = IRRIGURAN BIDE ZEN, EIKI, ALA TRUFA-
GURAN OTE?

Aipatu artikulorietatik asko, aldizkarietan argitaratu zituen, *Eskualdu-
na-n*, *El Dia-n*, *La Voz de Navarran*, *Argia-n* eta bestetan. Eta amaitzeko, bere
eskuara aberats, jaun eta bide batez herrikoia iastatzeko, ene laudoriak baino

A. IRIGARAY

obeki argituko ditzuena huna bere artikulo labur eta gutti ezagun bat, MANDO PUTHARKARIA (Ostikokaria) deitua.

A. IRIGARAY
(De la Academia de la L. vasca)

MANDO PUTARKARIA (OSTIKOKARIA)

Pettan eta Betti negu heze eta hotz bortitzaren ondorioz, batek gerruntzian eta *bertzeak* belaunian, zernahi pairatu zuten errumatismaz, eta laneko ezinduak zauden astian bizpahiru egunez, ohetik ezin igituz.

Azkenian yuan ziren Akizeko uretarat, edo hobeki erraiteko, loietarat, hango mainu beroek mirakuluzko sendatzeak egiten baizituzten.

Hamar bat egun han iragan ondoan, osoki sendatu ziren, eta min guziak itsabasiturik, iduriz sekulakotz, lorian zauden. Eta handik etxeratekuan, adostu ziren Baionan gelditzeko zonbait egunez, beren oinazen ondotik behar zutela yostatu, gogo itsa bozkarioan bilakatzeko. Eskualdun ostatu batetarat yuan ziren, *Hotel des Basques* deitua, eta han, eskualdunen artean, hain goxoki zauden, non sekula etziren higituko, beren etxeko lanek ez baluzte bortxatzen aitzurrari lotzea. Bainan etxetik kanpo izanez geroz, behar zuten bidenabar, mainuen estakuruarekin, ederki iragan bizpahiru egunez Laphurdi-ko hiri nausian.

Bazkalondoan, Miarritzeko itsas leiorraren ikusterat yuan ziren, eta harrituak zauden hango botiga, *Casino* eta yauregi ederrez; denak aberats okituez beteak, eta sosa xautzen dutenetarik ahurtaka barreatuz beren yostakerietan; hainbeste dohakabe eta errumesek doi-doia ahorat ahamen bat nekez helarazten dutelarik...

Gero hurbildu ziren itsas hegirat, eta han ikusi zituzten yendeak erdi buluziak uhinen artean; emazte ausartak, batere axolarik gabe beren buluztasunaz.

Atsalaskaria *Bar* batfan egin ondoan, Baionarat itzultzian ohartu ziren bazter guziak emokatuak zirela itz larri batzuez: *Cirque Français, Cirque Français*, alderdi guzietan.

Euskaldunari arras laket zaio *Circo-ko* yostakeriak; eta Yuanes beren adixkideak Iruñen ikusi zituen debrukerik entzun ondoan, gutizia piztu zitzaizkoten.

Afal ondoan badoazi, beraz, *Circo-rat*, eta sartzean harritu ziren ikustean barne haundi hura dena yendez koka-ahala mukurru. Ikusliar oste guzia irri karkailan zagon. Circo-aren erdian baziren bi gizon zirtzil, soineko irrin-garri batzuekin yauntziak. Begitarateak irinez xurituak, ezpainak asto baten heinekoak, gorri gorriak, eta begi bat uspeldua edo lehertua itxuran, erdi etsia. Paltoak hain zabal eta lazo zituzten, nun baten barnian kokatzen ahal ziren bien gorpuzak. Bulta luze bat zartaka ibili ondoan. batek agintzen du:

—Yaun anderiak: Orai ateratuko dugu mando putarkari eta izikor bat; eta norbait ardiesten balin badu haren gainean egoitea, ehun liberaz saristatua-izanenda.

Bizpairu gizon gazte, banazka, ausartatu ziren; bainan neholere etziteken hurbildu debu mando basa hari. Buria apaldu eta, izigarriko putharrak birazka botatzen zituen airez aire, gizon baten buria xehakatzeko indarrezkoak. Eta futxo beldurtiak zauden mutikoak.

Pettan hamar urte egona zen Californiako zelaietan zaldi basa hezten, eta geldi-geldia zagon bere lekian, irriño bat ezpainetan. Azkenian badoa mandoaren-ganat izpirik durduzarik gabe, bainan emeki, begiak zorrotx, eta haren yauzi eta putarrerri itzulia arturik gatu baten zalutasunarekin besarkatzen da mandoaren lepoari eta tinki loturik han dago dilindan.

Mando basak zazpi ahalak egiten ditu pizu haundi hura aurtikitzeke, buria ezin altxatuz. Eta lehertua, maltsotu delarik, Pettan yauzi batez igaiten da bizkarrerat eta bere izter luziak triparen azpian kurutzaturik, laparra bezala han dago lotua.

Oste guzia xutiturik esku zartaka goresten eta ohoratzen du Pettanen kalipua eta trebetasuna.

Eta Circo-aren nausiak, begitarte ilun doi batekin, emaiten dako ehun liberako paper yoria.

Pettan = Beltrán.
Bettiri = Pedro.
Kalipu — energía.
Uhinak = olas
Itsabasitu = apagar
Adostu = ponerse de acuerdo
Itsas lehiorra = playa
Mukurru = lleno, colmo
Itsas egia = orilla del mar
Heze = húmedo
Tinki = prieto
Lazo = flojo
Durduza = turbación
Akize = Dax
Mainu = baños
Okitu = opulento
Atsalaskari = merienda
Paltoa = chaqueta
Putarkari = coceador
Libera = franco (moneda)
Hezi = domar
Putar = coz

